

OROITZA TXOSTENA

SERANTES KULTUR ARETOA AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN JARDUERA (2019)

Ohi bezala, Serantes Kultur Aretoa Autonomiadun Erakundeak 2019an egin dituen jarduera garrantzitsuenei buruzko informazioa emango dugu. Ematen diren datuak, orokorrean, kuantitatiboak dira eta gaika azaltzen dira. Datu guztiak SKAk herritarrei eskaintzen dien zerbitzuari dagozkio, Udalak eta erakundearen estatutuek ezartzen dutenaren arabera. Informazioari zenbait iritzi kualitatibo gehitu dizkiogu, bai eta Artezkaritza Kontseiluaren esku jarri diren Oroitza-txosten espezifikoak ere.

Ahal izan dugunean, erantsi dugu aurreko urtearen aldean garrantzitsuenak izan diren parametroen bilakaeraren analisi kontrastiboaren analisi-markoa.

ESZENA PROGRAMAZIOA

2019an 42 ikuskizun profesional aurkeztu ziren SKAn (2018an baino 4 gutxiago), nahiz eta 45 funtzio eskaini, hirutan funtzio bikoitza eskaini zelako. Haietako 6 umeentzat edo familia osoarentzat izan ziren (5 euskaraz), 2 dantza-emanaldi, zirku-ikuskizun 1, 3 lirika- eta musika-emanaldi, 4 kontzertu eta 25 italiar erako antzezlan nagusientzat (haietako 4 euskaraz).

Guztira, 16.539 ikus-entzule izan ziren. Txarteldegian 226.670,65 euroko diru-sarrerak izan ziren; 2018an berriz, 16.366 ikus-entzule eta 203.476,54 euroko diru-sarrerak.

Zenbakiak aurreko urtekoak baino altuxeagoak izan dira. Horren arrazoia batez ere Antzerki Jaialdiak izan duen inpaktua izan da, guztira 400 ikusle gehiago izan zituen eta. Baina orokorrean azken urteotako ildo beretik joan dira, unez uneko igoera eta jaitsiera txikiak gorabehera.


2018an gertatu bezala, haur- eta familia-programazioa urtearen lehenengo hiruhilekoan sartu da batez ere, goizeko saioak eman izan baitira zinema eta antzerkia txandakatuz. Denak ikusteko abonauk saldu dira eta oso emaitza ona lortu da.

Bestalde, aipatzekoa da kalean egiteko prestatu den eszena-programazioa. Batez ere Antzerki Jaialdian eskaini izan dira. Garai horretan lau ikuskizun programatu ziren, zeinetatik bat bertan behera utzi behar izan zen

eguraldia tarteko. Karmengo jaietan ere kale-ikuskizunak egon ziren, bi zehatz-mehatz.

Azken 5 urteotan eszena-jarduera profesionaletan egon diren ikus-entzuleen kopuruaren bilakaerak zerra-hortzen itxura du, 2015ean izan zela unerik baxuena. 2016. eta 2017. urteetan, berriz, oso datu onak egon ziren, bosturteko daturik onenak hain zuzen. Joera hori ez zen iaz gelditu datu erlatiboetan eta, aipatutako arrazoiak tarteko, datuak egoki ari dira bilakatzen.

USUARIOS CASA TORRE



ZINE PROGRAMAZIOA


2019an, guztira 85 film estreinatu ziren, aurreko urtean, berriz 84. Hala ere, 85 film berri horiek gehiago dira, kontuan hartuta hilez hil eta programazioan izandako luzapenak, areto aldaketak edota aldizkako emanaldiak. Horrela bada, iazko 52 asteetan 115 film izan ziren SKAko pantailetan.

Urtean zehar 65.838 ikus-entzulek erosi zuten zinemarako txartela, hau da, batez beste 5.486,5 ikus-entzule hileko. Haietatik % 15,90 SKAko bazkideak ziren.

Aurreko urtean 63.644 ikus-entzule izan ziren eta haietatik % 16,49 bazkide. Azken batean, % 3,44 ikus-entzule gehiago. Horren arrazoia zera da, ohiko zinema-kontsumoa behera egiten ari dela orokorrean, ez da ezer nabarmenik gertatu horretarako.

Diru sarrerak 258.667,50 eurokoak izan ziren, eta horri bazkide-txartela izateko jasotako 69.000 euroak (iaz bazkideek egin zituzten zinema-kontsumoak konpentsatzen dituztenak) gehitzen badizkiogu, 327.677,50 euro dira, aurreko urtearen aldean % 7,19ko igoera izanik.

Iaz filmak emateko eskubideak erosteko guztira 216.667,34 euro gastatu zirela kontuan hartuta, 111.011,16 euro dago SKAren alde. Aurreko urtekoa baino emaitza hobea, baina ez duena berez zinema-kontsumoaren jaitziera progresiboa zuzentzen. Horren arrazoa bikoitza da. Batetik, orokorrean herritarrak aisialdian bestelako jardueretan aritzen direla; eta bestetik, ikus-entzunezko euskarri berrien inpaktua handia dela. Horren ondorioz, beheko koadroan ikusten den bezala, zinemara etorri diren ikusle kopuruan gorabehera handiak izan dira, kontsumo errepikakor guztietan gertatzen den bezala. Kasu honetan ikus-entzule gutxiago etorri direla ikusten da, orokorrean zinemara doazen herritarrak gero eta gutxiago direlako toki guztietan.



Bestalde, jarraian erakusten den taulan ikusten den bezala, SKAko zinemara doazen ikus-entzuleen dinamikan urterik urte errepikatzen den joera dago, zeina publikoarentzat interes handiko film bereziren batek baino ez duen apurtzen. Iaz ohi baino erregularragoa izan zen.

Ikus-entzuleen grafikoa hilez hil 2016tik 2019ra

HILA/URTEA	2016	2017	2018	2019
Urtarrila	6663	4357	5933	4331
Otsaila	6825	5886	5934	4529
Martxoa	6165	9348	5575	5638
Apirila	5170	6403	3947	7016
Maiatza	3916	3621	3764	5930
Ekaina	4070	4988	4422	3691
Uztaila	4967	6328	4683	6119
Abuztua	4270	4493	4368	5023
Iraila	5099	4350	3463	4158
Urria	10138	4200	3876	6726
Azaroa	5616	4546	6607	4797
Abendua	10590	12711	11072	7880

Zine Klubari dagokionez, iaz guztira 7.158 ikus-entzule izan zirela adierazi behar dugu. Ia 2017an eta 2018an beste.

Era berean, esan dezakegu zine klubeko saioetan batez beste izandako ikus-entzule kopurua aurreko urteetakoaren antzekoa izan zela (486 emanaldiko). Berrito ere esan behar dugu programazio hau egonkortu egin dela, batez ere, SKAko bazkideen artean (ikus-entzuleen % 92). Bazkide gehienek zinema izan dute bizitzan zehar aisialdirako aukera eta hortaz, herriko eta inguruko herrietako belaunaldi nagusienetakoak dira. Hona hemen beste datu garrantzitsu bat: inguruko herrietan bazkide ugari ditugu. Azken batean, zine klubak aisialdirako eskaintzen duen aukera paregabea ez ezik, talde batzuetako fidelizazioa lortzeko tresna ere bada.

Ikusten denez, 2013an eta 2014an gorakada nabarmena izan zen; izan ere, urte haietan bazkide kopuru ederra lortu zen, nahiz eta krisiak eragin itzela izan zuen kontsumoan. Ildo honetan, Zine Klubeko eskaintza aisialdirako oso aukera merkea da.

Kontuan hartutako gainerako urteetan antzeko kopuruak daude eta, funtsean, programatutako film kopuruaren arabera igo eta jaisten dira. Azken hori jai-egutegiak mugatzen du.

URTEA	2015	2016	2017	2018	2019
IKUSLEAK	8807	8264	7984	8807	7774
FILMAK	16	15	14	14	16

SKA-ko ARETOAK ETA KRESALA LAGATZEA

Iaz SKAko hiru aretoetan hainbat erakundek eta udal arlok antolatutako 54 ekitaldi eta jarduera bildu ziren. Horietatik 18 alokairuan izan ziren eta 26.200 euroko diru-sarrerak ekarri zituzten.

Guztira ia 20.000 ikus-entzule egon ziren, aurreko urtean baino gehixeago.

Kresala Aretoan, berriz, elkarte eta udal-arloei doan lagatako 108 ekitaldi eta alokairuko beste 3 eman ziren. Guztira 3.700 herritarrek baino gehiagok erabili zuten.

Gune horretako erabilera hurrengo urteetan gutxi gorabehera zifra beretan mantenduko dela uste dugu; izan ere, Casa Torre jauregiak eta Kabia eta Mamariga Kultur Guneak hartu dute Kresala aretoak inauguratutakoan izan zuen eskariaren zati handia.


CASA TORRE JAUREGIA

Iaz ekitaldi ugari antolatu ziren Casa Torre Jauregiko aretoetan. Guztira 15.248 herritar egon ziren, aurreko urtean baino gutxixeago. Ez dirudi ezer berezirik gertatu denik ia 3.000 lagun gutxiago egoteko. Gure ustez, aisialdia erabiltzeko aldaketa naturala izan da.

Casa Torre Jauregiko aretoak 17 aldiz alokatu ziren, eta horrek 1.900 euroko diru-sarrera ekarri zuen.

Arestian aipatu bezala, Casa Torre Jauregiko aretoetan urtero 15.000 eta 20.000 bat erabiltzaile ibiltzen dira. Gure ustez, horixe da eraikinak jaso ditzakeen gehienezko muga, publikoaren erabilerari dagokionez aisialdirako ordutegian.

Mamariga Kulturgunea eta Kabia egonda ere, Kresala Aretoa gehiago erabiltzen da erdigunean dagoelako.




Erakusketa-gelari dagokionez, 15 erakusketa egin dira, mota askotakoak. Guztira, 11.295 lagun egon dira erakusketetan, 2018an baino gehixeago.

Bestalde, Interpretazio Zentroak 250 bat bisita partikular izan ditu eta heziketa zentroetan antolatutako 200 talderen bisita.

Guztira, aurrerago aipatutako kontzeptuetan, zinema- eta antzerki-jardueretan eta aretoak lagatzean, SKAk antolatutako zerbitzuetan 139.901 lagun egon ziren 2019an, hau da, 2018an baino % 1 gehiago.

Kontuan hartutako bost urteetan, batez beste, 150.262 erabiltzaile izan dira, grafikoan ikusten den bezala.



JAIETAKO JARDUERA

Serantes Kultur Aretoak jaietako jardueretan azken urteetako baldintza berberetan hartu du parte.

Jai-egutegiak zehaztutako zikloari jarraituz, honako hauek dira SKAko jardueran izan diren datu garrantzitsuenak:

INAUTERIAK

Joan den urtean jaitsieran parte hartzen dutenek antolakuntzari buruz emandako irizpideei erreparatu nahian, hainbat aldaketa egitea erabaki zen ordura arte ezarritako formatuan. Honakoak izan ziren aldaketa nagusiak:

- 1. Sailkapenak:** Erabaki zen haur eta helduen arteko banaketa kentzea, bai eta itsas-mozorroa eta inauteri-mozorroaren artekoa ere. Horrela bada, kategoria bakarra utzi zen talde-kategoriarako (4 lagunetik gora) eta banakakorako (3 lagun edo gutxiago).
- 2. Sariak:** Aurreko banaketak desagertu zirenez, sariak batu egin ziren. Banakako kategoriaren irabazleak 200 € eraman zituen eta

tramankuluarenak beste horrenbeste. Horrez gain, 12 sari ezarri ziren taldekako kategoriarako (guztira 5.100 €), eta itsas-gaia sustatzen jarraitu nahian, sari extra bat eskaini zen itsas-gaian mozorrorik onena zuen herritarrari, 500 € eman zitzaizkion.

- 3.** 15 lagunetik gorako taldeentzako dietak: Aztertu ondoren, egiaztatu zen eskaintzen genituen 70 dietetatik erdia baino gehiago jabe gabe geratzen zirela. Hori dela eta, aurten erabaki genuen 30 baino ez eskaintzea eta soberako dirua sariak hobetzeko erabiltzea.
- 4.** Ordutegia: Desfilea 30 minutu beranduago hasia erabaki zen, 19:00etan hain zuzen. Horrela bada, dietak beranduago eman ziren eta sari-banaketa atzeratu egin zen. Horrela, desfilearen hasieran jende gehiagok hartu ahal izan zuen parte.
- 5.** Sari berezia ondoen apaindutako merkataritza edo ostalaritza lokalari: Sari hau Turismo Bulegoak eskaini zuen eta bertan itsas-gaia erabiliz ondoen apaindu den lokala saritu zen 500 € emanez.

Inauterien jaitsiera martxoaren 9an egin zen. 39 taldek eman zuten izena (2018an baino 16 gehiago) eta desfilearen egunean guzti-guztiak aurkeztu ziren. Guztira, 1.164 bat lagunek hartu zuten parte jaitsieran (iaz baino 364 gehiago).

Izena eman zuten 39 horietatik, 6 lagunek banaka edo bikoteka hartu zuten parte, eta 33 taldek, gehienak oso jendetsuak. Batez beste 35 lagunek hartu zuten parte talde bakoitzeko.

Horrez gain, 12 merkataritza/ostalaritza lokalek apaindu zituzten euren negoziokoak itsas-gaia zutela goiburua.

Jaitsiera 19:00etan hasi zen Sardinera Parkean eta hortik Itsasalde, Habana Baporea eta Gernika Parkera jo zuten.

Ibilbidea ordu eta erdiz luzatu zen, eta ibilbide osoan zehar jendetza batu zen.

Gorabehera bakarra gertatu zen; ibilbidea amaitzear zegoela, talde batek zeraman 4,20 metroko platafoma bat Habana Bapora kalean zegoen kable batean trabatu zen, posta-bulegoaren parean. Kablea tenkatu egin zen eta farolaren goiko aldeko argietako bat irauli egin zen. Zaintzan zegoen Inelsa enpresako langileari deituta, horrek argia desmuntatu zuen ezer gertatu ez zedin, eta kablea gorago tenkatu zuen. Udalak herriaren erdiguneko kaleetan instalatuta dituen kableak gehienez 5 metro garai dira eta horrela jakinarazten zaie parte-hartzaile guztiei desfilean izena ematen duten egunean. Arazoa zera izan zen, kablea Gernika Parkean zegoen foodtruck batena zela. Lehenengoz jarri ziren hor inauterietan, eta ez zuten arazo hori kontuan hartu. Aintzat

hartuko dugu hemendik aurrera egiten diren edizioetan Gernika Parkean kokatzea eskatzen duten foodtruck-ek ez dezaten argindarra errepidearen gainetik hartu.

Desfilea amaitu zenean, Gernika Parkean bertan, diskoteka egin zen. 20:00etan hasi eta gaueko 23:00ak arte luzatu zen.

KORNITE EGUNA

Kornite erromeria apirilaren 22an egin zen, Pazko astelehenean. Egun eguzkitsua izan zen eta 18-19 graduko tenperatura izan genuen. Egun polita egin zuen, milaka izan ziren eguna Serantes mendian ematera animatu zirenak.

Berrikuntza gisa eta une horretan Seranteseko dorrea birgaitzeko egiten ari ziren lanak tarteko, jende ugari batu zen mendi-tontorrean aurreko urteekin alderatuta. Izan ere, dorrea bera zabalik egon zen eta Aranzadi Zientzia Elkarteari esker, barrutik bisitatu ahal izan zen.

Gainera, aurreko urteetan bezala, Mazo gunean jolas-puzgarriak egon ziren goiz eta arratsaldez, bai eta erromeria ere arratsaldean Basajaun taldearen eskutik.

DYAk zerbitzua gorabehera handirik gabe eman ahal izan zuen. Guztira 13 lagun artatu ziren eta horietako 2 Gurutzetako ospitalera eraman zituzten.

SAN JORGE JAIK

2019ko San Jorge jaiak bi asteburutan egin ziren, beti bezala. Lehenengoa apirilaren 23, 26, 27 eta 28an ospatu zen eta Serantes Kultur Aretoa antolatu zuen, eta bigarrena, maiatzaren 3, 4 eta 5ean, Txosnagunek eta herriko ostalariek antolatuta.

Horrez gain, Udaleko zenbait arlok eta Santurtziko elkarteek jai-egitaraua borobiltzen lagundu zuten. Honakoek hain zuzen: Turismo Arloak, Gizarte Ekintza eta Berdintasun Arloak, KUIk, Memoria Historikoaren Atalak, Merkataritza Bulegoak, Liburutegiek, Mendi Alde Konpartsak, Santurtziko Txistulari Bandak, Santurtziko Musika Bandak, Santurtzi Kantarik, Ahots Zuriak Koralak, Santurtziko Gaztela eta Leongo Etxeak, Dantza Taldeek, Itsasalde Pilota Taldeak, Santurtzi Sareak, Omar Fraile Peñak eta Berbalagunek.

Apirilaren 28ko hauteskundeak tarteko, Hauteskunde Batzordeak eskatutako espazio publikoak ezin izan zirenez erabili, erabaki zen J.J. Mendizabal enparantzan 6x4 neurriko oholtza bat instalatzea jaietako lehenengo asteburuan, Karmengo jaietan egiten den bezala. Horrela, aukera

egon zen beste espazio bat izateko gure esku programatutako jarduerak tokiz aldatu behar izanez gero.

Programatutako jarduera guztiak egin ahal izan ziren, nahiz eta euretako batzuk aldatu behar izan ziren eguraldia tarteko, adibidez, apirilaren 27koak. Haur parkean ezin izan ziren jolas puzgarriak instalatu eta familia-jolasak beste toki batean egin behar izan ziren. Kuadrillen topada Gernika Parkean egin zen eta Galo's festa J.J. Mendizabal enparantzan egin bazen ere, jende gutxiago batu zen eguraldi txarra zegoelako.

Jende gehien bildu zituen jarduerak hauek izan ziren: gaueko emanaldiak, nabarmentzekoa TOREROS MUERTOS taldearen kontzertua, haur-jarduerak, batez ere, umeen alardea, eta kuadrillen topada.

Aire zabaleko pintura-lehiaketan 50 lagunek hartu zuten parte.

Kuadrillen Topadan 24 kuadrillek hartu zuten parte, guztira 230 kuadrillakidetik gora. laz baino jende gutxiago, ziur aski eguraldiagatik.

KARMENGO JAIK

2019an jaiak uztailaren 12tik 21era egin ziren.

Jaietako antolakuntza Autonomiadun Erakundearen Artezkaritza Kontseiluan onartutako irizpideen arabera egin zen. Egitaraua Serantes Kultur Aretoak langileek sortu zuten, urtariletik egin zuten lanaren ondorioz. Antolakuntzan herriko hainbat elkarte ere hartu zuen parte, batez ere Jai-batzordeak eta jaietako kuadrillek, haiekin apiriletik aurrera hainbat lan-bilera egin zituzten.

Hona hemen 2019ko Karmengo Jaietako balorazioa:

1. Jaietako azpiegitura

Aurreko urteetan bezala, honako hauek izan dira jaiegunetan zehar jaiegunean jarritako azpiegiturak:

- Serantes Kultur Aretoak kudeatuta:
 - 10x10 neurriko karpa Gernika Parkean.
 - 6x4 neurriko agertokia J.J. Mendizabal enparantzan.
 - 18x14 neurriko agertokia eta backstage-a (artistentzako 6x2,35 neurriko 2 jantzi-gela, 5x5 neurriko jaima bi, komun kimiko bat eta komun vip 1) Reina Victoria pasealekuan, Bilboko Portuko sarreran.

- Barandadun 6x4 neurriko oholtza eta arrapala ezgaituek kontzertuetan erabil ditzaten.
 - 6x2,35 neurriko modulua DYAk olatuen parkean jarritako posturako.
 - 6x2,35 neurriko modulua oinez-gunean laguntza-zerbitzurako.
 - Pantaila erraldoia Soteraren lokalaren fatxadaren ondoan.
- Obra eta Zerbitzu Arloak kudeatuta:
 - Umeentzako barrakak Reina Victoria pasealekuan, KUIko igerilekuetatik bertoko lur azpiko parking-aren sarreraraino
 - Helduentzako barrakak KUIko aparkalekuan, Nautikaren ondoan.
 - Kalez kaleko salmenta postuak Parke Nagusian, Itsasalde kalearen hasieran.
 - Talo-txosnak Arrantza Portuaren zabalgunean, Arrantzaleen Kofradiaren aurrean.
 - Komunak dituzten 6x2,35 neurriko 3 modulu, saneamendu-sarera konektaturik.
 - Komun kimikoak jai-eremu osoan zehar.
 - Food truck-ak
 - Santurtziko Txosnaguneak kudeatuta:
 - 10x8 neurriko agertokia Pantalanetako zabalgunean.
 - 19 txosna Reina Victoria pasealekuan, tren-pasabidetik KUIko igerilekuetaraino.
 - Komun kimikoak pantalanen gunean.

2. Jarduera-egitaraua

131 ekitaldi egin ziren, askotarikoak, bai publikoa eta bai gaiak anitzak izan ziren eta. Guztiak burutu ahal izan ziren 2019ko jaietan eguraldia bikaina izan zelako.

Programatutako ekitaldi gehienak publiko ororentzat ziren, baina nabarmendu beharra dago ia 40 beren-beregi umeentzat izan zirela.

Euskararen presentziari dagokionez, umeentzako ekitaldi guztiak (kuadrilla txikien probak barne), uztailaren 13ko DJ-a, uztailaren 16 eta 20ko dantza-plazak, uztailaren 17ko kontzertuetako bat eta 21ean, igandea, egin zen harri-zulatzailen liga euskara hutsean izan ziren. Gainera, aurten Euskara Zerbitzuak antolatutako hiru ekitaldi izan ziren: uztailaren 13an, larunbata, zinema aire zabalean, 15ean, astelehena, Kantu Lagun taldea

kalean eta 20an kale antzerkia “Demode Quartet” taldearen “Epa Txiki” ikuskizunarekin. Gainerako ekitaldiak euskaraz eta gaztelaniaz egin ziren, hirugarren adinekoentzako jarduerak izan ezik, esate baterako dantzaldiak, hauek gaztelania hutsean izan ziren eta.

Hurrengo hauek izan dira jendetsuenak:

Kontzertuak agertoki nagusian

Kontzertu jendetsuenak Beretek eta Camelak eman zituzten. Bertan 18.000 bat lagun batu ziren. Vulcano Orkestrarena eta Victor Manuelena ere oso arrakastatsuak izan ziren, 14.000 eta 10.000 bat lagunek ikusi baitzituzten hurrenez hurren.

Musika Bandak Cotirekin eman zuten aurten kontzertua. Hor 5.000 bat lagun batu ziren, eta kopuru bertsua EraBatera eta Sidecars eta La Casa Azul taldeen kontzertuetan.

Azkenik, bai Txistularien Bandak Los Chimberosekin emandakoan, eta bai herriko bandek emandakoan 1.000 bana lagun egon ziren ikusten.

Sardinaren eguna

Ohi bezala, sardinada jaietako lehenengo egunean egin zen. Obra eta Zerbitzu Arloak udalaren 24 pailak banatu zituen. Horietako 12 Serantes Kultur Aretoak antolatutako sardina-banaketarako erabili ziren, Itsasalde eta Juan XIII kaleetan; besteak, berriz, udalerriko kuadrilla eta ostalarien artean banatu ziren.

Guztira, SKAren ardurapean 1.000 kilo sardina baino gehiago banatu ziren.

Jarduera gorabeherarik gabe egin zen eta 30.000 bat lagun bildu zituen, aurreko urteetan baino gehixeago.

Itsas Prozesioa

Urtero bezala, Itsas Prozesioa jende gehien bildu zuen ekitaldietako bat izan zen, bai itsasoan eta bai lehorrean 100 bat itsasontzi bildu ziren eta.

Guztira 35.000-40.000 lagun batu ziren, gutxi gorabehera.

Dena behar bezala joan zen ontzietako kide guztiek araudia eta koordinatzaileak emandako aginduak bete zituztelako. Sorospenerako 10 itsasontzi egon ziren eta jarduera inongo gorabeherarik gabe egin zen. Oso ekitaldi arrakastatsua izan zen, urtero bezala.

Gainera, komunikabide ugari eman zuten ekitaldi honen berri, hala tokikoek nola Estatukoek.

Azkenik, iaz egin zen moduan, ekitaldia oso-osorik portuan jarritako pantaila erraldoi baten bidez zabaldu zela adierazi nahi dugu, lehorreko eta itsasoko tartetan egon ziren kamerei esker.

3. Herriaren parte-hartzea

Jaiak eta berorien antolakuntza makina bat erakunde eta herritarren parte-hartzearen emaitza da, zeinek egiten dituzten ekarpenen bidez, lortzen duten jai herrikoi eta santurtziarrek maitatuak izatea.

Zehatz-mehatz hurrengo hauek hartu dute parte jaietako jardueren inguruko zereginetan:

Kuadrillak

2019an helduen 51 koadrila eta umeen 14 erroldatu ziren. Guztira, 1.000 bat kuadrillakidek hartu zuten jaietan parte kolore, giro on eta alaitasunez betez.

Ohi bezala, koadrilen jarduera guztietan publiko ugari bildu zen. Horietan nabarmentzeko modukoak dira lehenengo eguneko jaitsiera bustia, uztailaren 18ko (osteguna) balandro-estropada, uztailaren 19ko (ostirala) Playback proba eta azken eguneko Gorka sarien banaketa. Azken ekitaldi horrek jende gehiago biltzen du urterik urte.

Nabarmentzekoa da “Mozorro Gaua” jarduera, duela bi urte kuadrillak eurak sortu eta sustatu zutena, egonkortu egin dela kuadrillen taldeetan. 2019an uztailaren 17an egin zen, asteazkena, gauez.

Elkarteak

Santurtziko jai egitaraua herriko elkarteek antolatutako jarduez dago gehienbat osatuta. 2019an 25 bat elkartek edo taldek jardun zuten elkarlanean egitaraua egiten.

60 jarduera antolatu zuten guztien artean kirola, musika, kultura eta abarreko esparruetan.

Serantes Kultur Aretoak eta Udaltzaingoak egin zituzten kalkuluen arabera, 400.000 lagun baino gehiago bildu ziren jai-eremuan, 10 jaiegunetan zehar.

Jaietako egun batzuetarako euria iragarrita bazegoen ere, azkenean ateri egon zen eta giro ederra egon zen programatutako jarduerak egiteko.

SARDINERA EGUNA

Sardinera Eguna irailaren 28an izan zen, larunbata. Hala ere, Itsasazoka irailaren 27tik, ostirala, 29ra, igandea, egon zen zabalik.

Egitarauaren diseinu eta garapena Serantes Kultur Aretoaren, Kultura Arloaren Memoria Historiko atalaren eta Turismo eta Merkataritza zerbitzuen esku egon zen. Aldi berean, Santurtziko hainbat elkarte eta norbanakok laguntza eman zuten, aipatu den bezala.

Egunero eguraldi ona izan zenez, programatutako jarduera guztiak egin ahal izan ziren. Hona hemen jarduera guztiak banan-banan:

Itsasaldiak Karmengo Ama ontzian

3 itsasaldi programatu ziren: 9:30, 10:45 eta 12:00etan. Itsasaldi guztiak bete zirenez, 120 pertsona bildu ziren.

Ontzien erakusketa

Itsasoko Ama arraun taldeak eta Itxas Egurra Haizean elkarteak beren ontziak erakutsi zituzten portuko arrapala handian. Diagonalean eta hesirik gabe jarri zirenez, ikusleek nahi beste argazki atera ahal izan zuten.

Photocall-a

Santurtzi Itsas Museoan egin zen 11:00etatik 19:00etara. Jarduera ez gidatzeko erabakia hartu zen, bertaratutakoek argazkia atera zezaten Santurtziko sardina-saltzaileen jatorrizko otarra hartuta. 200 lagun pasatu ziren photocall-etik.

Arrantza tailerra

Hasieran kai-muturrean egitea aurreikusi bazen ere, azkenean, horma-irudiaren inauguraziorako aurreikusita zeuden su artifizialak zirela-eta, pantalanen egitea erabaki zen. 35 lagunek hartu zuten parte tailerrean.

Bisita antzeztuak Agurtza Atunontzian

3 bisitaldi egin ziren goiz osoan (11:30, 12:15 eta 13:00etan) eta 50 lagunek hartu zuten parte.

Itsasaldiak itsasadarrean raft ontzian

Akuamaya Aventura enpresak antolatu zituen. 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara egin ziren. Guztira 80 lagunek hartu zuten parte.

Umeentzako jarduerak

Aurten ere azken urteotan ezarri egin den Itxas Parkea gure artean izan genuen. Aparkalekuan ezarri zen, RENFEko hesiaren ondoan.

Omenaldia

Iaz, Sardineraren monumentuan 12:00etan egin zen ekitaldia Juana Mozas Cardenal "Juaniri" eskaini zitzaion. Ekitaldian jende ugari elkartu zen.

Kalejira

12:15ean hasi zen Sardinera parkean eta Arrantza porturaino joan zen. Omendutako enonez, Gorka saria irabazi zuten emakumezko kuadrillakideek sareak zeramatzatela egin zuten kalejira. Erraldoiek, Santurtziko musika eta txistulari bandek eta Gaztela eta Leongo dultzaineroek alaitu zuten kalejira. Ekitaldi horretan 2.000 lagunek hartu zuten parte.

Sardinak porturatzea eta enkantea

13:30ean egin zen ERRE KE ERRE taldearen eskutik. 120 lagun egon ziren, aretoaren edukiera guztiz betez.

Santurtziko Aureskua

MENDI ALDE dantza-taldeak antolatu zuen, eta besteak beste, Kabiezeseko harri-zulatazaileen taldeak hartu zuen parte (Euskadiko txapeldunek) eta Santurtziko KAKUL HERRI-KIROL ELKARTEAK.

Herri Bazkaria

Gernika Parkean egin zen, egiturak aukera ematen duelako ekitaldia antolatzeko. 600 lagunentzako tokia zegoen eta txartela guztiak saldu ziren.

Ekitaldia Santurtzi kantari taldeak eta Santurtziko Gaztela eta Leongo Etxeko dultzaina-jotzaileek alaitu zuten.

Wig Paddle eta Big Sup

Jarduera hauek Gazteboxek antolatu zituen. Arratsaldean egin ziren arrantza portuan.

Sardinada

100 kg banatu ziren 20:00etatik aurrera.

Hiru pailatan erre zituzten boluntarioek. Jai Batzordeak banatu zituen.

Erromeria

Sukar taldeak girotu zuen arratsaldea. Erromeria 20:00etatik 22:00etara izan zen gutxi gorabehera eta jende ugari ibili zen dantzan.

GABONETAKO JARDUERAK

Azken urteotan bezala, Haur Parkeak Gernika parkean, Kabiezeseko Kiroldegian eta Mamarigako pilotalekuan ezarri ziren. Abenduaren 26tik urtarrilaren 5era egin ziren (urtarrilaren 1ean izan ezik), 11:30etik 14:00etara eta 17:30etik 20:30era (abenduaren 31n eta urtarrilaren 5ean izan ezik, goizez baino ez zirelako zabaldu).

Hiru parkeetan haurrentzako jarduerak egon ziren, besteak beste, puzgarriak, ludotekak, tailerrak, bideo-jokoak ... Jarduera guztiak 2-14 urte bitartekoentzat izan ziren.

30 lagunek osatu zuten GHPetako lan-taldea: Koordinatzaile nagusi bat, 3 koordinatzaile (bat GHP bakoitzeko), 24 begirale 3 parkeetan banatuta, Mamarigako Kulturguneko begirale bat eta segurtasunerako langile bat Gernika Parkean.

Hona hemen zenbat ume egon ziren parkeetan jolasten:

- Gernika parkean: 11.640 lagun.
- Kabiezeseko kiroldegian: 11.743 lagun.
- Mamarigako pilotalekuan: 2.894 lagun.

lazko parte-hartzearekin alderatuta, zifrak jaitsi egin direla antzeman daiteke, zehatz-mehatz 1.352 ume gutxiago egon dira eta. Bestela ere, GHPetan ez zen aipatzeko inolako gorabeheragrik egon.

Egun horietan 7 ume-ikuskizun eskaini ziren, den-denak euskaraz. Horietan 150-200 ume batu ziren batz bestea, emankizuna eta kokapenaren arabera.

Abenduaren 28an erromeria egin zen Gernika parkean, 19:00etan, ERDIXKA LAUETAN taldearen eskutik. 100 bat lagun bildu ziren.

OLENTZERO

Jarduera hau Zugaitza dantza taldeak, GHPko enpresa esleipendunak eta Serantes Kultur Aretoak antolatu zuten elkarlanean.

Goizez Begoñako Andra Mari Egoitzan egin zuen bisita Olentzerok eta arratsaldean kalejira izan zuen, eta horren ostean, umeei harrera Gernika parkean.

Hirurak gorabeherarik gabe gauzatu ziren, antolatu ziren moduan.

Kalejiran 200 bat lagun ibili zen eta Olentzerok 700 ume jaso zituen Gernika parkean, aurreko urtean baino 100 bat gutxiago.

ERREGE MAGOAK

Errege Magoekin lotutako ekitaldi guztiak DAEM elkartearen laguntzarekin egin ziren.

Urtarrilaren 3an Casa Torre Jauregian Hiru Erregeen postariaren harrera egin zuten Santurtziko ume guztiek. Ekitaldian ez zen gorabeherarik izan eta hurbildu ziren ume guztiak hartu zituen. Arratsaldeko 17:30ean hasi zen gutxi gorabehera eta 21:00etan bukatu.

Urtarrilaren 5erako, Errege Magoak Santurtzira heldu ziren egunerako, ordutegian eta ibilbidean aldaketa batzuk egitea erabaki zen, zentzuzko ordutegi batean egin ahal izateko batez ere. Arrazoi hori tarteko, erabaki zen Kabalgata portutik bertatik bertan abiatzea, karrozak hortxe gorde ez ezik, hortxe egiten zaielako Erregeei harrera-ekitaldia. Horrela bada, Erregeak Santurtzira 18:00ak aldera heltzea aurreikusten zen itsasoz, Alkateak hartu eta gure herriaren giltza eskura emateko. Baina ekitaldi hau beranduxeago hasi zen, 20 minutu beranduago hain zuzen. Ekitaldia amaituta, Erregeak arraunpabilioira joan ziren Kabalgatan parte hartu behar zuten ume guztiei harrera egitera. Baina ekitaldi hau ere aurreikusitako baino gehiago luzatu zen. Bi atzerapen horiek direla eta, Kabalgata 19:35ean hasi zen, hau da, 35 minutu beranduago eta honek haserrea piztu zuen zain zegoen publikoaren artean.

Ibilbidean ez zen inolako gorabeherarik egon. Honakoa izan zen: Arrantza Portuan hasi eta Itsasalde, Habana Baporea eta Las Viñas kaleetan ibili ostean, Murrieta etorbidera jo zuten. Handik Santa Eulalia kalera eta J.M. Barandiaranetik gora Kabiezeseko errotondaraino heldu ziren. Errotondari bira eman eta J.M. Barandiaran kaletik behera, Udaletxeraino joan ziren bertan amaitzeko.

20:45ak aldera hasi ziren Errege Magoak umeak Casa Torre Jauregian hartzen eta 23:00ak aldera amaitu zen jarduera.

Kabalgata 15.000 pertsona inguruk jarraitu zuen eta Casa Torre Jauregiko harreran 3.000 izan ziren gutxi gorabehera.

BESTE JARDUERA BATZUK

Otsailaren 5ean, Santa Agedaren bezperan, herriko kaleetatik kantatzera atera ziren abesbatza guztien topaketan lagundu zuen SKAk. Gernika parkean elkartu ziren guztiak eta handik herriko zenbait kaletan ibili ziren kantuan. 500 bat kantari ibili ziren eta SKAk salda eta pintxo bana eskaini zien.

SKAk herriko hainbat elkarterekin dituen hitzarmenen bidez, SKAko programetan sartzen diren ekitaldi asko egiten dira elkarlanean, batez ere jaietako jarduerekin lotutakoak.

Lehenengoz, Santurtziko Arte Plastikoetako Elkartearekin daukan hitzarmen baten bidez, lokal bat utzi zitzaion berriro Santa Eulalia kalean eta arte plastikoetako hainbat tailer egiteko diru-laguntza eman zaie. Tailer hauetan 300 lagunetik gora ibiltzen dira.

Lagun Zaharrak Abesbatzak, SKAren diru-laguntza eta laguntzarekin, Abesbatzen Topaketen 40. edizioa antolatu zuen eta horien barruan San Jorge elizan organo bi kontzertu izan ziren. Pedro Guallar organo joleak eman zituen biak. Lehenengoan Celia Alcedo soprano santurtziarrak abestu zuen, eta bigarrean Jaime Martínez txistulari santurtziarra aritu zen organo jolearekin batera. Abesbatzen Topaketan, aipatutako kontzertuez gain, 7 kontzertu koral egon ziren, haietako 3 talde atzeritarrek emandakoak.

Azkenik, Koralak Gabonetako zazpigarren kontzertu berezia egin zuen abenduaren 28an, Musika Bandarekin batera.

Union Musical Vizcaína Musika Bandak kontzertu eta emanaldi batzuk eman zituen jaietan eta jaietatik kanpo. Bereziki aipatzekoa da Karmengo jaietan eman zuen kontzertu arrakastatsua COTIrekin batera.

Bestalde, Santurtziko Txistulari Taldeak 19 emanaldi eman zituen, nabarmenena izanda Karmengo jaietan Tolin kantariarekin batera egin zuena.

Erraldoi eta Buruhandien Mendi Alde konpartsak, zeinak Autonomiadun Erakunde honekin lankidetzaz hitzarmena sinatuta duen, 10 kalejira egin zituen herriko jaietan.

Beren-beregi horretarako sinatutako hitzarmenari esker, Denontzako Auzo Elkarteak Mahastiak Elkarteak Errege Magoen kabalgata antolatu zuen.

Encrucijada Antzerki taldeak umeentzako tailerra egin zuen Autonomiadun Erakundearen laguntzarekin batera.

SKAk Saregabe elkartearekin hitzarmena sinatu zuen SANTURZINE film laburren VII. Jaialdia egiteko. Amaiera ekitaldian Asier Otxandiano izan zen artista gonbidatua.

Bestalde, indarrean dagoen diru-laguntzak emateko araudiaren arabera, herriko zenbait elkarteri eman zitzaion laguntza diruz, Herriko jai bietan antolatu zituzten jarduerentzat eta bost dantza talderi zenbait kontzeptugatik.

Bukatzeko, Santurtzi biz webgunearen administratzailea den Juan Carlos Beltran de Heredia jaunarekin sinatutako hitzarmenari esker, 15.000 argazki baino gehiagoko artxiboa dugula adierazi behar dugu. Artxiboan gero eta argazki gehiago dago eta gure historia argazkien bidez ezagutu nahi duten pertsona guztiek dute eskuragarri.

SKAko BAZKIDEAK

Jakina denez, bazkide-politika SKAko jardueraren preskriptorerik onena bilakatu da; Autonomiadun Erakundearen komunikazio-politika eraginkortasun handienaz eramaten laguntzeaz gain.

Grafikoan politika honek azken sei urteotan izan duen bilakaera ikus daiteke.




Txartela erabiltzen dutenen iazko datu deskribatzaileek adierazten digute 2.874 bazkideen % 65,2 Santurtzin bizi direla eta % 21,2 Portugaleten. Gainontzeko datuak inguruko herrietakoak dira.

Bazkideen artean, % 62,6 emakumeak dira eta % 37,3 gizonak.

Portzentaje horiek ia 2018koak bezalakoak direnez, bazkideen fidelotasuna oso handia dela esan dezakegu.

Erabiltzaileen adinari dagokionez, grafikoan adierazten diren tarteen arabera ehunekoetako banaketa ondokoa da:



Salgai jarritako eszena-jardueren txartelen % 42 SKAko bazkideek hartu zituzten, iazko portzentaia bera. Zine komertzialeko eta zine klubeko portzentaiak ere aurreko urtekoen antzekoak izan ziren, hots, % 15,9 eta % 92,6 hurrenez hurren.

KOMUNIKAZIO-JARDUERA

SKAk, iaz, 479 iragarki labur egin zituen irratietan, 72 spot telebistetan eta 16 iragarki prentsa idatzian. Gainera, Karmengo jaietako Kontzertuak zirela-eta El Correo egunkarian 4 iragarki lortu ziren doan.

Era berean, jaietarako bi aldizkari egin ziren eta formatu askotako 13 eskuorri programazioaren inguruan.

Guztira, 200.000 ale banatu edo herritarren postontzietan sartu ziren, haietako 10.000 Ezkerraldeko eta Meatzaldeko herrietako publikoa eta unibertsitate, eskola eta beste zenbait kultura-gunetakoak etortzeko banatu ziren.

Zenbait jardueren inguruko 5 kartel egin ziren, eta taldeek eman zizkigutenekin batera, 5.000 ale baino gehiago banatu ziren guztira.

Era berean, 17 plotter egin ziren erakusketen berri emateko eta 7 muppi jarri ziren, Metroan 5 eta Bizkaiko Zubian 2. Bilboko prentsa-kioskoetan 2 pantaila digital erabili ziren Antzerki Jaialdirako eta Bizkaibuseko bi autobusetan 2 binilo.

Gainera, Casa Torre Jauregiko pantailan Serantes Kultur Aretoak antolatutako jarduera garrantzitsuenak iragarri ziren. Herrian dauden pantailetan ere iragarri egin ziren, besteak beste, bideoak emanez. Horrela, Serantes Kultur Aretoak antolatzen dituen jarduera nabarmenenak ezagutzera eman ahal izan ziren.

Sare-sozialetako komunikazioari dagokionez, 5.461 jarraitzaile dugu Facebooken eta 5.531 "atsegin dut" jaso ditugu. Twitterren 1.019 jarraitzaile ditugu eta Instagramen 654. Gainera, 7 banner jarri ziren online bidez Antzerki Jaialdirako.

SKAko webgunea iaz 84.330 erabiltzailek egindako 528.364 bisita jaso zituen.

Bi mila posta elektronikoa baino gehiago bidali zaizkie astero bazkideei eta horretarako helbide elektronikoa helarazi diguten guztiei, SKAko

programazioa zabaltzeko. Halaber, SKAk antolatutako emanaldi berezien berri beste zenbait ere ematen zaie: euskaltegiei, dantza ikastegiei, koadrilei...

Azkenik, 11 prentsaurrekoak, 24 Prentsa Oharrak eta zenbait hedabidetan hitzartutako hainbat elkarrizketa azpimarratu nahi ditugu, bai eta herriko erakunde eta pertsonekin izan ziren hainbat koordinazio eta informazio bilerak ere.

Azkenik, herriko erakunde eta norbanakoekin koordinazio- eta informazio-bilera ugari egin zirela gogoratu behar dugu.

Santurtzin, 2020ko ekainaren 26an 14an
SERANTES KULTUR ARETOKO ZUZENDARIA
Carlos Morán Arostegi